



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	ESP. KODEA COD. EXP.	2024CONB0002
EXPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK	
TITULARRA TITULAR	ANAITASUNA FUTBOL TALDEA	
IFK CIF	G-20346102	

Jakinarazten dizut, gaurko egunez, Azkoitiko Korporazioko Alkate-Lehendakariak, honela dioen Dekretua eman duela:

ANA AZKOITIA URTEAGA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATEAK, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Udal honetako 2024ko aurrekontuetan, ANAITASUNA FUTBOL TALDEAREN aldeko diru laguntza ematea aurreikusten dela, 2023/2024 denboraldia aurrera eramaterko.

KONTUAN HARTURIK

Departamentuko zerbitzu teknikoak egindako proposamenaren aldeko iritzia azaldu duela ondorengo txostenean:

AURREKARIAK

-2024ko otsailaren 16an, 1282 Udaletxeko sarrera zenbakiarekin, ANAITASUNA FUTBOL TALDEAK 2023/2024 denboraldirako diru laguntza eskatu duela.

-2023ko abenduaren 14an Azkoitiko Udalbatzak onartu zuen 2024ko udal aurrekontua, 2023ko abenduaren 20an, behin behineko iragarkia kaleratu zen GAO-n, eta 2024ko urtarrilaren 23an, erreklamaziorik egon ez zenez, behin betiko onartu. Aurrekontu hauetan Anaitasuna futbol taldearen diru laguntzaren partida jasotzen da. Baita ere, Diru Laguntzen Plan Estrategikoan, diru laguntza hau aurreikusita dago.

- Horren ondorioz,

PROPOSATZEN DUT

A- Diru laguntza arautzen duen honako hitzarmena sinatzea:

KULTURA DEPARTAMENTUA – Tel . 943 857170 - kultu@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

AZKOITIKO UDALAREN ETA ANAITASUNA FUTBOL TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana Azkoitia Urteaga, Azkoitiko Udaleko alkatea eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Pedro Urdapilleta Ulayar (NAN:72.461.443-N), G-20346102 IFK duen Anaitasuna futbol taldearen izenean eta haren ordezkaritzan.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Anaitasuna futbol taldea eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioari aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikuluen arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Anaitasuna futbol taldea irabazteko asmorik gabeko elkarte da, 1986ko apirilaren 23an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkartearen Erregistroan CD0000250 zenbakiarekin inskribatuta dago.

III.- Anaitasuna Futbol Taldea da herrian futbol arautuan jokatzeko aukera ematen duen entitate oinarritzakoa. Hark ematen die herritarrei futbol federatuan



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

aritzeko aukera, eta prestakuntzaz, antolamenduaz eta alderdi administratiboez arduratzen da.

IV.- Lankidetzeta hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Anaitasuna futbol taldeak jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, 2023/2024 denboraldia finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.19 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA: Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2024. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Anaitasuna futbol taldeari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Anaitasuna futbol taldeak aurkeztu duen programa aurrera eraman dezan: 2023/2024 denboraldia, hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke diru-laguntza.

Alabaina, udalaren diru-laguntza honek ez ditu Anaitasuna futbol taldearen gizonetako seniorren 3. mailako taldearen gastuak kubrituko, nahiz eta, modu bakanduan, 3. mailako taldearen balantze ekonomikoa aurkeztu beharko duen.

Horrez gain, aipatu beharra dago diru-laguntzaren zati bat (9.000 euro) futbol zelaiaren mantenu lanetarako bideratuko dela. Mantenuaren aurrekontua, ordea, hasieran aurreikusten zena baina handiagoa izan da. Hori dela-eta, diru-laguntza honen osagarri modura, udalak mantenu lanaren gastuaren gainontzeko zati bat zuzenean ordainduko duela erabaki du. Hori kontuan izango du udalak 2024/2025 denboraldirako, eta garaia iristean erabakiko du mantenu gastu horiei nola aurre egin modu egokiago eta eraginkorrago batean.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Baita ere, hitzarmen honen bidez arautuko da Azkoitian futbolaren jarduera, bai eta Txerloia eta San Juan futbol zelaiak erabili eta kudeatzeko moduak ere. Hitzarmenak zehaztuko ditu bi aldeen erantzukizunak eta haiek egin beharreko ekarpenak.

BIGARRENA: Anaitasuna Futbol Taldeak herrian futbola sustatu eta garatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta lan hori egiteko behar diren jarduerak zuzentzekoa ere. Anaitasuna Futbol Taldeak ondoren zehazten diren eginkizunak betetzeko konpromisoa hartzen du:

-ESKOLA KIROLA: Anaitasuna Futbol Taldea herriko ikastetxeekin lankidetzan arituko da, eskola kiroleko futbola aurrera eramateko. Ikastetxeekin eta Azkoitiko Udalarekin adostuko du Anaitasunak lankidetzaz hori, hura nola gauzatu ikusteko, eskola kirolarekin zer-nolako eta zenbaterainoko lotura izango duen kontuan hartuz, bai antolamenduaren eta jardueren ikuspuntutik, bai eskola kirolaren kontzeptuzko planteamenduaren ikuspegitik. Nolanahi ere, elkarrearen lankidetzak ez du inola ere gutxitu edo murriztuko herriko ikastetxeek eskola kirolarekiko duten erabaki gaitasuna.

1. Eskola kiroleko programan egiten diren ekintzen osagarri izango dira Anaitasunak benjamin zein alebin kategorietako jokalariei eskainitako ekintzak (Futbol Eskola); beraz, Futbol Eskolan aritzen direnek eskola kirolean izena emanda izan beharko dute.
2. Bateragarriak izan behar dute Anaitasunak antolatutako lehiaketa eta entrenamenduak eta eskola kiroleko programaren egutegi eta ordutegiak.
3. Anaitasunak egiten dituen ekintzetarako beharrezkoak diren eskola-lizentziak tramitatuko ditu Azkoitiko eskola kirolaren egiturak.
4. Anaitasuna futbol taldeak honako konpromisoa hartzen du eskola kirolarekin: Futbol 8ko epai lanak egitea.

-FUTBOLA: Aurretik adierazitakoarekin batera, herriko futbol plangintzaren programa prestatuko du, herriko ikastetxe guztien artean egindako jarduera planekin bat. Azkoitiarrak aukeran izango dituzten futbol jarduera guztiak jaso behar ditu programak, haien ezaugarriak (lehiaketa edo sustapena), esparruak (ikastetxeak edo kluba) eta egutegia.

-INSTALAZIOAK: Txerloia eta San Juan zelaien kudeaketa osoa egingo du, ondorengo xede eta eginkizunak betez:

- Sarrera eta erabilpenaren kudeaketa.
- Kontrola, mantentze-lanak, kontserbazioa eta garbiketa.
- Belar natural eta artifizialeko zelaien mantentze lanak.
- Publizitatearen ustiapena.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HIRUGARRENA: Azkoitiko Udalak diru laguntza desberdinak emango dizkio Anaitasuna Futbol taldeari jarduera desberdinak egiteko:

1.-BERROGEITA HAMALAU MILA EUROKO (54.000 €) diru-laguntza emango dio Anaitasuna Futbol taldeari 2023/2024 denboraldirako, 2024eko udal aurrekontuko sail honetatik: 1.3000.481.341.00.02. Ordainketa batean emango da diru-laguntza, hitzarmena sinatu ostean. Diru-laguntza jasotzeko, dokumentazio hau aurkeztu behar du Anaitasuna Futbol Taldeak:

- 2023/2024 ko denboraldiko programa eta jardueren proiektua.
- 2023/2024 ko denboraldiko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia.

2.- BEDERATZI MILA EUROKO (9.000.-€) diru laguntza emango dio Anaitasuna Futbol taldeari Txerloiko futbol zelaiko denboraldi bukaerako mantenu lanengatik, 2024ko udal aurrekontuko sail honetatik: 1.3000.481.342.30.01. Ordainketa batean emango da diru-laguntza, hitzarmena sinatu ostean.

LAUGARRENA: Anaitasuna Futbol taldeak Txerloia eta San Juan futbol zelaiak erabiliko ditu eta Txerloiko eraikinean izango du bere egoitza..

Instalazioak, Azkoitiko Udaleko Ondasun Erroldan 31 (Txerloia) eta 51 (San Juan) matrikula zenbakiekin jasota daude. Udalak doan lagako dizkio eraikinak Anaitasuna Futbol taldeari bere erabilerarako. Lagapen hori prekarioz egingo da, eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.

Txerloia eta San Juan futbol zelaien kudeaketa osoa egingo du Anaitasuna Futbol Taldeak, ekonomia-ustiapen burutsua eginez eta dituen baliabideei etekinik onena ateraz.

Anaitasuna Futbol taldeak egoera onean zaindu eta gorde behar ditu futbol zelaiak. Hauen ondasun eta instalazio erabilpen arruntak sortutako konponketak emakidadunaren ardurakoak izango dira.

Udalaren kontura izango dira egun indarrean den legeriaren arabera instalazioei egin beharreko ikuskapenak.

Anaitasuna Futbol taldeak derrigorrezkoa izango du instalazio guztiak behar bezalako garbitasun eta osasun baldintza onetan edukitzea. Garbiketa lanen baitan, bakterioak akabatzeke produktuek errespetatu egin behar dute ingurumena, bidezkoak diren sanitate erregistroak izan behar dituzte, eta garbitasun-baldintza egokiak bermatu behar dizkiete erabiltzaileei.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Elkartea izango da futbol zelaietako azpiegituren, eraikinen, instalazioen, altzarien eta ekipamendu guztien erabilpen eta funtzionamendu zuzen eta egokiaren arduradun bakarra. Instalazioen erabilera gastuak, telefono gastuak izan ezik, Udalak ordainduko ditu (ura, energia elektrikoa, gasa, aurreko atalean sartu ez diren konponketak eta egun indarrean den legediaren arabera instalazioei egin beharreko ikuskapenak).

Azkoitiko Udalaren baimenik gabe, ez da inolako obrarik egiterik izango, ez eta ekipamenduak aldatzerik ere.

BOSGARRENA:

- Aurkeztu den programaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren logoarekin batera.
- Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Kultura Departamentuari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatiko diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

SEIGARRENA:

Anaitasuna futbol taldeak ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) Zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:
 - Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.
2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra:
 - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

ZAZPIGARRENA:Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

7.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

7.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gaitutako gastu guztiaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioen bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

7.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

7.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiritik justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2024ko irailaren 30ean amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurriz eta



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2024ko abenduaren 31an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ARRUNTAREN bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena, Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera, diruzainak sinatua.
- b) Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.
- c) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua, Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera, diruzainak sinatua.
- d) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan frogatutako balioa duten beste agiri original guztiak, beraien kopiekin aurkeztu beharko dira eta Kultura Departamentuak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du.
- e) Jaso-izanaren egiaztagiria begiratu beharko dira, 300 €tik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin al den egiaztatuko da. Gainera, Igorle beraren Jaso-izanaren egiaztagiri aztertuko dira eta PFGZren atxikipena al duten egiaztatuko da, beti ere igorlearen kopuru metatua 300 €tik gorakoa bada.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

ZORTZIGARRENA: Diru-laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurretara izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatuz gero, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

BEDERATZIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketenen bestelako diru-laguntzekin eta Anaitasuna futbol taldearen gainontzeko sarrerekin, beti ere, udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Anaitasuna futbol taldeari.

HAMARGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Anaitasuna futbol taldean lanean ari diren langileez eta Anaitasuna futbol taldea izango da, langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Anaitasuna futbol taldeak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udalak kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- b) Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko, beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko aukeraren inguruan.

HAMABIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAHIRUGARRENA: Administrazioako auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzeak haren deuseztapena ekar lezake eta elkartearen diru-laguntza itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Alkateak
Ana Azkoitia Urteaga

Anaitasuna futbol taldeko lehendakaria
Pedro Urdapilleta Ulayar



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

B- Elkarteari dagokion diru laguntza ematea, diru laguntza emateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen delako: elkarrekin aurkeztu dituen agiriak aztertu ondoren, hitzarmeneko bigarren artikuluan eskatzen diren dokumentazio guztia aurkeztu duela eta aurreko ekitaldiko diru laguntza zurituta dagoela baieztatzen da.

Ondorioz,

ERABAKI DUT

LEHENA- ANAITASUNA FUTBOL TALDEAREN eta Azkoitiko Udalaren arteko hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- ANATAISUNA FUTBOL TALDEARI 63.000€ko kopurua ematea, 2023/2024 denboraldiko gastuengatik, udal honi dagokion bezala. Halaber, aipaturiko gastua Azkoitiko udal aurrekontuko partida hauei atxikitzea:

54.000€	1.3000.481.341.00.02
9.000€	1.3000.481.342.30.01

HIRUGARRENA- Erabaki hauen berri interesatuari eta Kontuhartzaitza Departamentuari ematea.

LAUGARRENA.- Diru laguntza hau, BDNS plataforman argitaratzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldek, Administrazioak birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjarpen errekurtsua tartekatatu zuen datatik kontatzen hasita.

IDAZKARIAK

KONTUHARTZAILEA

KULTURA DEPARTAMENTUA – Tel . 943 857170 - kultu@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKUc99b4561-0e84-4628-940a-5eacc58de88c

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024CONB0002-JAKINARAZ. KONTUH ANAITASUNA FUTBOL HITZ/NOT INTERV